

IRAKURRI AURRETIK

Ze testu mota dela iruditzen zaizu?

Non atera da?

Aspaldi idatzitako testua izango dela iruditzen zaizu? Zergatik

Nork idatzi du?

4 || Irutxuloko hitza || 2012ko maiatzaren 9a, asteazkena

Hiria >

Quironek zuhaitzak landatu beharko ditu mozketa egin zuen lekuan

Bi hilabeteko epean, erietxe azpiko berdeguneko landaretza berreskuratzeko plana aurkeztu beharko dute

Erudakzioa

Eguzki talde ekologistak Quiron erietxearen azpian eta Egiako parkearen ondoan dagoen berdegunean 50 zuhaitz bota zituztela salatu zuen martxoan. Zuhaitzak nork moztu zituen eta hori egiteko arrazoiak zeintzuk ziren ezagutu nahi zituzten. Udal gobernuak Quiron erietxeak bota eta udal baimenik gabe egin zuela argitu zuen. Udalak, bada, zuhaitzak ziren lekuan berriak landatzera behartu du erietxea kudeatzen duen Grupo Hospitalario Quiron enpresari.

Landaketa, halere, azaroa eta



Quiron erietxearen azpiko lursail bateko zuhaitzak moztu zituzten. EGI20

martxoan bitartean egin beharko du, orduan baina garai aproposa. Aurretik, inguruko landaretza berreskuratzeko plana aurkeztu beharko dute.

Bi hilabete izango dituzte plana aurkezteko baina zuhaitzak ziren

Egiako parke ondoko eremua txukuntzeko ere. Sute arriskurik egon ez dadin, lurtean dauden egurrak behar bezala jarri eta sarbideak egokitu beharko dituzte.

Axier Jaka Ingurumen zinegotziak azaldu duenez, «udal go-

bernuak ez du Quironek eginiko ekintzaren antzekorik onartuko». Bilduko zinegotziak, gainera, «horrelako ekintzak buztzeko asmoa duten guztiek jokabide bera» izango dutela barmendu du.

IRAKURRI ONDOREN

Zer salatu du Eguzki talde ekologistak?

Ze jakin nahi zuten salaketa eginez?

Nor edo nortzuk arduratuko dira erantzuna aurkitzen?

Nola konpondu da arazoa?

Zer iruditzen zaizue zuhaitzak baimenik gabe moztea?

Egokia iruditzen zaizu hartutako erabakia? Pentsatu, zuei ondo iruditzen zaizkizuen, posible izan daitezken beste erabaki batzuk,